



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2019KO MAIATZAREN 31EAN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), udaletxeko bilkura aretoan, 2019ko maiatzaren 30ean arratsaldeko 17:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Xabier Azpiroz, Bakartxo Ripalda eta Aitor Arangoa.

BERTARATU EZ DIRENAK: M^a Mar Ansorena.

17:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko batzarreko akta onartzea.

2019ko apirilako ohiko batzarreko akta, deialdiarekin batera bidali da eta bildutakoek aho batez onartzen dute.

2.- Alkate ebazpenak.

Alkateak irakurtzen ditu orain arte emandako alkate ebazpenak:

-2019/55 alkate ebazpena apirilaren 25ean Felix Arraztoari iharduera baimen ez kaltegarria ematea, Igoako 301, 302 eta 311 lursailetan ardiak edukitzeko.

- 2019/56 alkate ebazpena apirilaren 25ekoa 2019ko apirilaren 25ean Igoako 9 poligonoko 301, 302 eta 311 lursailetan 73 ardi edukitzeko jarduera baimen ez kaltegarriaren titularitatea aldaketa onartzea, 72620117D NAN zenbakia duen Juana Arrechea Elizalderen izenera pasatuz.

- 2019/57 alkate ebazpena apirilaren 30ean onartuz Jose Sagardia Huartek egindako zaharberritzeko dirulaguntza eskaera Olako 15. Poligonoko 37. Lursaillean dagoen etxebizitzaren kalefakzio sistema aldatzeko.

- 2019/58 alkate ebazpena maiatzaren 6ko datarekin onartuz 2019 urteko Zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultzea 6263CNG matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik.

-2019/59 alkate ebazpena maiatzaren 24koa onartuz 2019 urteko zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultzea NA4405AL matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik.

- 2019/60 alkate ebazpena maiatzaren 6koa Onartzea Basaburuan euskaren erabilera sustatzeko ihardueren programa eta diru laguntza eskatzea 2019/23E Foru Aginduaren arabera.

- 2019/61 alkate ebazpena maiatzaren 29ko Gartzarongo Toki-Alai elkarteak elkarteko balkoia berritzeko aurkeztutako aitorpen arduratsuen tasen likidazioa onartzea.

- 2019/62 alkate ebazpena maiatzaren 29koa Jose Joaquin Barberena Echeverriari obra baimena emanaz, Berueteko 11. Poligonoko 455. Lursailean dagoen etxebizitzaren teilatua berritzeko.

- 2019/63 alkate ebazpena maiatzaren 29an Peio Dorai Bengoetxeari obra baimena emanaz, Beramendiko 2. Poligonoko 128. Lursailean dagoen biltegiaren teilatua berritzeko.

- 2019/64 alkate ebazpena maiatzaren 29koa Jose Navarro Arribilagari obra baimena emanaz, Berueteko 11. Poligonoko 41. Lursaileko biltegiaren teilatua berritzeko.

- 2019/65 alkate ebazpena maiatzaren 29koa Beramendiko San Miguel parrokiari obra baimena ematea Beramendiko Apezteko teilatua berritzeko.

- 2019/66 alkate ebazpena maiatzaren 29an egindakoa Xabier San Martin Miqueori obra baimena ematea, Arrarasko Etxandiko bordan bigarren etxebizitza bat egiteko.

- 2019/67 alkate ebazpena maiatzaren 29koa Juan Vildarraz Iribarrenek Udabeko 1 poligonoko 14 lursailean dagoen etxebizitzaren sabaian isolamentua jartzeko obra egiteko aurkeztutako aitorpen arduratsuen tasen likidazioa onartuz.

- 2019/68 alkate ebazpena maiatzaren 29koa onartuz Beatriz Fuertes Oñak egindako eskaera, 2019 urtean egurra uzteko tokia 21. zenbakia duen egurtokia izanen delarik.

- 2019/69 alkate ebazpena maiatzaren 29koa onartuz Nafarroko Iparraldeko Euskara Mankomunitateak egindako eskaera eta baimena ematea eskolako hesian, polikiroldegian eta Apeztegi berriko paretan, eskualdeko artistek egindako irudiak jartzeko.

- 2019/70 alkate ebazpena maiatzaren 29koa ez onartuz Tatiana Landeira eta Jose Sanchezek egindako gainbalioaren jakinarazpena zuzentzeko egindako eskaera, 2017/19 Foru Legearen 1. Eta 2. Artikuluetan oinarrituz, eskatzen duten zuzenketaren likidazioa 2015eko abenduan egin zelako eta epez kanpo

Bildutakoak ontzat ematen dituzte egindako ebazpenak.

3.-Moziok.

Ez dago moziarik.

4.- Batzordeen informazioa.

-Kirol Batzordea. Bakartxo Ripaldak ematen du informazioa.

Helduendako yoga ikastaroa udan ere jarraituko du. Gartzarongo pilota txapelketa prestatzen ari dira.

BTT egunean oso eguraldi txarra egin zuenez, egokitu behar izan zen ibilbidea. 40 pertsonen parte hartu zuten.

-Gizarte Zerbitzuetako Batzordea. M^a Marrek eman du informazioa.

Ekainaren 3tik 13ra erakustaldia egingen da Apeztegi berriko ganbaran prostituzioaren inguruan eta horekin lotuta hitzaldia egingen da 13an, Medicos del Mundoren aldetik.

Gainera imprimaki batzuk prestatuko dira nerabeen artean banatzeko geneko biolentziaren inguruan.

5.- Informazio orokorra.

1.- Nafarroako Gobernua.- Toki antolamenturako zerbitzua

2019ko Maiatzaren 2ko 584/2019 ebazpena Toki administrazioko zuzendari nagusiak emana, non Basaburuko Udalaren "Basaburuko azpiadarra" izeneko inbertsioa 2017-2019 aldirako toki inbertsioen planean sartzeari uko egitea guztiz onartzen duena.

2.- Nafarroako Gobernuko hezkuntza departamentua.- obren atala

Maiatzaren 6ko 260/2019 ebazpena non beste batzuen artean Basaburuko udalari %65eko dirulaguntza onartzen zaion Oihanzabal eskolako kanpoko ballak aldatzeko.

3.- Nafarroako Gobernua.- Osasun departamentua

Maiatzaren 15eko 483/2019 non beste batzuen artean Basaburuko udalari 770 euroko dirulaguntza onartzen zaion guraso eta adineko pertsonen hezkuntza afektibo-sexual programa egiteko.

6.-Errege-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 18:00ak direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.